

2020-2021

Aizpea Leizaola irakasle

Caro Barojak "Formas de casa y formas de poblado" testuan adierazten zuen bezala, "Habitatzeko erak, egitura soziala eta egitura ekonomikoa estuki loturik daude"(132 or., 1972). Euskal Herrian ere, nahiatez, hala da; baina joera bat egon da, 1972an iada Caro Barojak identifikatua, baserria erromantizatzeke, forma ekonomiko eta sozial baten bizileku zena garai "primitibo eta paradisiakoen" islada bezala ikusteko.

XVI. mendean, Aro Modernoa esaten zaiona osatzen ari zela, baserrien hedapen bat egon zen, baino paradisuak ez. Herri lurak zirenak labore lur bilakatu eta ustiapen pribatuaren esku geratu ahala, lur horietan maizter izango zirenentzako etxebizitza egonkorak eraiki ziren, nahiz eta debekatua egon (Narbarte Hernandez, 2018). Caro Baroja seinalatzen duen bezala, baserri askoren izenak hasieran herrien nukleoetan zeuden etxeekin zuten harremana erakusten dute, berak erabiltzen duen adibidez berbera baliatuz, herri batean Apezteguia izeneko etxe bat bazegoen, herritik kanpo Apezteguikoborda izeneko baserri bat aurki zitekeen .

Narbarte Hernandezek esaten du borda edo sarobeetan baserriak egitea "herri lurren pribatizazioarako abangoardia" gisa har daitekela. Lur hauek abeltzaintzarako izan ohi ziren, eta haien pribatizazioak sortu zituen auzi ugariengatik daukagu haien berri. Auzietatik, eta, Caro Barojak egiten duen bezala, izenetatik: Apezteguia zena, kasu batzuetan, ez zen Apezteguikoborda bilakutzen, baizik eta Apezteguisaroi edo Apezteguisarobe, edo horrelako zerbait.

Baserrien zabaltzea, sakabanatuak eta herriaren nukletik aldeniakoak zeuden etxebizitzaren areagotze honek, garaiko presio sozial eta ekonomikoari erantzun zien. Izan ere, XVI. mendean Marxen jatorrizko metaketaren garaian gaude, kolonizazioan sartuak, sorgin ehiza nonahi... Ez ziren, ez, garai paradisiakoak.

Otxandizagako etxebizitzaren eraikuntzan ere ziren betiko garai onenak. Jorge Grauren 1961eko dokumentalaren hasieran entzuten dugu nola Extremadura eta Galiziako gizonak, "Amerika berriro konkistatuko zutenak" estatuko leku aberatsenetara migratzen zuten, kasu honetan Bilbora, "nahi beste lan" zegoen tokira. Lana bai, baina etxerik ez, eta Bilbo inguruan txabola auzoak sortu ziren.

Bilbo inguruan landa eremutik nahiz Euskal Herri kanpotik ailegatutako etorkinak pilatzen ari ziren garai honetarako, baserriak, hau da, eremu atlantikoko etxebizitzak, galdu egin zuen bere jatorrizko funtzioa. Ez baserriak bakarrik: Kapitalismoak nekazalgoaren egitura ekonomikoaren bukatu zuen, eta Extremaduran, Galizian nahiz Euskal Herrian, jendeak bere etxeak, bere herriak, utzi zituen, hirietan konzentratzen zen "mugimendu industrialera" batzeko. Horrek, nahitaez, aldatu egin zuen bizi eredia, aldatu egin zuen etxea, eta jendeak berarekin zuen harremana.

Otxarkoagako auzoari buruzko dokumental batean¹ Manolo Leguina, José Luis Aurrekoetxea, Koldo Urrutikoetxea eta beste lekuko batzuk Otxarkoagan zegoen "giro rurala" deskribatzen dute, nola hango bizitza "edozein herritakoa" bezalakoa zen, eta, familiarekin bizitzera ohituak egonda, hasieran zaila izan zela hainbeste bizilagunengatik inguratutako bizitza. Baserrian askatasun bat zutela diote, etxebizitza berrien askatasun faltari kontrajarria. Dokumentalak Otxarkoagaren eraikuntza frankismoaren eraso bezala irudikatzen du, eman zizkieten pisoa baino handiagoak ziren etxeak zituzten jabeen atsekabea aipatuz.

Niri deigarriak iruditu zaizkit gizon hauen hitzak, baina baita haien abizenak ere, denak baitira euskaldunak. Jorge Grauren dokumentalean Bilbora eta zehazki Otxarkoagara etorritako Extremadura eta Galiziako langile guzti horiek datozkit gogora: Hauek zer aukera izango zuten baserri bat izateko, Euskal Herrian bertan baserriaren seme alaba gehienak baserrikanpo edo baserrian, baino neskazar edo mutilzar bezala, bukatzera behartuak bazeuden? Seguraski, Otxarkoagan izango zen baserrikanpo, eta, imaginazio apur bat erabiliz, pentsa daiteke seme primu ez ziren euskaldun baten batzuk ere baserri moduko etxebizitza ez hain kaskarrak eraikitzeke leku egokia aurkituko zutela han. Izango ziren, txabolen artean, txabola atonduagoak zituztenak, baino urik ez zutela ere badakigu...

Dena dela ez dut uste antropologoaren lana etxebizitza eta beraz bizimodu mota ezberdinei buruzko epaiketa moralik egitea denik, edo ez behintzat bere lehendabiziko lana. Caro Barojak esan bezala, etxea egitura sozial

¹ Link honetan ikus daiteke dokumental hau: <https://www.youtube.com/watch?v=kOLqWX5Duh8>.

eta ekonomikoarekin dago lotua, izan ere, haien produktu izanik haien islada ere bada, haren joerak salatzen ditu. Baserria erromantizatzen denean bizimodu eta egitura sozial eta ekonomiko bat ari da goraiatzten, seguraski, Otxarkoagako auzo berriak gogorarazten digun bizimodu eta egitura sozial eta ekonomikoa (gurea, gaur egungoa) ez ditugulako oso gustoko.

Baserrien eta nekazalgoaren bizimodu eta ohituren desagerpena ez zen frankismoaren errua izan, eman ziren aldaketak mundu mailako aldaketa ekonomiko eta sozialei erantzuten zieten, nahiz eta prozesu hau frankismoaren eman gure kasuan. Egia da, baita ere, frankismoak Euskal Herriko nekazalgoaren ohitura eta bizimodua erabat aldatu zituela, eta, kasu batzuetan, aldaketa horiek ez zirela izan mundu mailako joerak behartutakoak: Euskal etxeen jatorrizko funtzioen agorpena bai ala bai gertatuko zen, baino etxe horietan bizi zen jendearen bizimodu eta ohiturak ez zuten zertan hain jazarpen larria sufritu. Agian, kapitalismoaren garapena errepublika liberal baten forma zuen estatu batean eman izan balitz ez zen hain jazartua izango Euskal Herrian nekazalgoaren zati batek hitz egiten zuen hizkuntza eta haren inguruko kultura (hitzaren zentzu hertsian). Bidasoaren beste aldeko euskaldunek, ordea, gogorarazten digute gauzak ez direla hain sinpleak.

XVI. mendeko baserritarren eta Otxarkoagara joandako etorkinen etxe eta bizitzak oso ezberdinak izan ziren. Egia da, ordea, batak zein besteak biztanleria nukleoetatik urrun bizi behar izan zutela, garaiko indar ekonomiko eta sozialek arautzen zutelako etxebizitzaren ez soilik izaera baizik eta kokalekua. 2018an, Otxarkoagan 325² etxetan maizterrak bizi ziren, eta maizterrak ziren baita ere baserritar asko eta asko. Antzekotasunak muga handiak badituzte ere, azken antzekotasun bat aipatuko dut, iragana idealizatzen duten haien aurka: Jorge Grauren dokumental frankistak dioen bezala, “orain, beti bezala, goizero egun bakoitzaren arazoei aurre egin beharko zaie”. Egia da baserritarrentzako, Otxarkoagako auzoarentzako, eta egia da guretzako.

Bibliografía:

Caro Baroja, Julio. 1972. Los Vascos. Ediciones Akal.

EUSTAT.2019. Estadística del mercado de alquiler. Etxebizitzako Behatokia.

Grau, Jorge. 1961. Ocharcoaga. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=-sOB0rQ_B0E>

Narbarde Hernandez, Josu. 2018. Baserriaren sorrera ere, kapitalismoaren oinarri. Argia. Eskuragarri hemen: <<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2602/lur-komunaletatik-pribatuetara>>

Otxarkoagako Familia Elkarte.2011. Otxarkoaga. El nacimiento de un nuevo Bilbao. Eskuragarri hemen: <<https://www.youtube.com/watch?v=kOLqWX5Duh8>>

² Eskuragarri hemen:

s://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_ema19_1/es_ovv_sevi/adjuntos/Informe_EMA.pdf